

CUADERNOS ORKESTRA

ISSN 2340-7638

 <https://doi.org/10.18543/RTWM2847>

KOOPERATIBEN DEMOGRAFIA ETA ERAGINA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

LABURPEN EXEKUTIBOA

02/2026 zk.

 <https://doi.org/10.18543/RHIN1440>

Rakel Vázquez


Jabier Retegi


CUADERNOS ORKESTRA, 02/2026 zk. Laburpen exekutiboa.

ISSN 2340-7638

 Bilduma: <https://doi.org/10.18543/RTWM2847>

 Koaderno gaztelaniaz: <https://doi.org/10.18543/BEMX4312>

 Laburpen exekutiboa euskaraz: <https://doi.org/10.18543/RHIN1440>

 Laburpen exekutiboa ingelesez: <https://doi.org/10.18543/SUBM7150>

© Raket Vázquez, Jabier Retegi

© Lehiakortasunerako Euskal Institutua –Deusto Fundazioa

Orkestrari buruz:

la 20 urteko esperientzia eta ezagutzarekin, Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutua (Deusto Fundazioa) erreferentziazko ikerketa-zentroa da Europan eskualde-lehiakortasunari dagokionez. Euskal Autonomia Erkidegoan ongizate inklusibo eta jasangarriaren zerbitzura dagoen lehiakortasuna bultzatzea du helburu. Horretarako, institutuak ikerketa eraldatzaileko proiektuetan lan egiten du tokiko eta nazioarteko eragileekin, eta erabakiak hartzeko analisi zorrotzak egiten ditu.

→ Eskuratu gure argitapenak www.orkestra.deusto.es/eu webgunean

Eskerrak

Kooperatiben Kontseiluaren finantzaketarekin egindako txosten hau Kooperatiben Kontseiluak berak euskal enpresa kooperatiboen behatoki bat sortzeko bultzatutako proiektuaren barruan dago.

Txostena prestatzeko behar izan dugun informazioa Eustatek emandako datuetatik eskuratu dugu. Hain zuzen ere, Eustatek berariaz eta eskuzabaltasunez ustiatu ditu bere datu baseak, Orkestrak eskatutakoari erantzuteko.

Eskerrak ematen dizkiegu, halaber, Sabi-Informari, datuak eskaintzeagatik; Kooperatiben Erregistroari, Euskal Autonomia Erkidegoko kooperatiben erregistro egoera eguneratua gure eskura jartzeagatik; eta Konfekoop-Euskadiko Kooperatiben Konfederazioari, erakundeak biltzen dituen kooperatiben datu agregatuak emateagatik.

Laburpen exekutiboa

Lan honek Euskal Autonomia Erkidegoko kooperatiben errealitatearen ikuspegi ahalik eta zehatzena eskaintzea du helburu. Horretarako, hainbat iturritako informazio partziala bildu eta integratu da, horien artean, Euskadiko Kooperatiben Erregistroa, Eustat (Jarduera Ekonomikoen Direktorioa-DIRAE eta neurrirako estatistika informazioa), Konfekoop eta datu base pribatuak (adibidez, SABI-Infirma).

Eustat-DIRAEn eskuragarri dagoen informazioaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko kooperatiben kopurua, 2023ko urtarrilaren 1ean, 1.848 enpresakoa zen. Horrek % 16,4ko hazkundera adierazten du 2015arekin alderatuta eta % 6,7koa, 2020ko pandemiaren aurreko egoerarekin alderatuta¹. Kooperatibek Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa guztien artean duten pisua handitu egin da, 2015ean % 1,00 izatetik 2023an % 1,28 izatera igaro baita. Kooperatiben batez besteko tamaina (29,91 langile) lurraldeko enpresen batez besteko tamaina (6,2 langile) baino nabarmen handiagoa da. Euskal Autonomia Erkidegoko kooperatibetako enplegua, 2023ko urtarrilaren 1ean, 55.268 pertsonakoa zen, eta horietatik 28.476 gizonak ziren eta 26.792 emakumeak. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoko kooperatibek lurraldeko enpleguaren % 5,95 sortzen dute.

Kooperatibak hainbat aldagaien arabera (kooperatiba mota, banaketa geografikoa, sektoreak) segmentatuta aztertuz gero, honako alderdi hauek nabarmendu daitezke:

- Lan elkartuko kooperatiben presentzia handia da Euskal Autonomia Erkidegoan, eta gure lurraldeko kooperatibismoaren berezko ezaugarria da hori.
- Gipuzkoako lurralde historikoak du kooperatiben kopururik handiena.
- Lurralde historikoen hiriburuetan kooperatiben kontzentrazio esanguratsua dago.
- Zerbitzuetako kooperatibak eta Eraikuntzako kooperatibak kooperatiba guztien % 65,42 eta % 16,94 dira, hurrenez hurren.
- Enplegua sektoreen arabera nola banatzen den aztertuz gero, lurralde historiko batetik bestera aldatu egiten dela esan dezakegu. Araban, Hezkuntzaren sektorean dute kooperatibek parte hartzerik handiena enpleguan. Bizkaian, Zerbitzuen sektorean dute pisurik handiena eta Gipuzkoan, Makineria eta ekipoen fabrikazioan.
- Laneko bazkideez gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko kooperatibek, oro har, 1.512.576 bazkide inguru dituzte (erabiltzaileak, kontsumitzaileak, etab.).

Enpresa kooperatiboen altak eta bajak aztertuta, egiaztatu daiteke kooperatibek, aztertutako aldian, erresistentzia gaitasuna eta berritzeko gaitasun handia erakutsi dutela.

¹ Aipatutako datu iturrietan eskuragarri dagoen informazioa gurutzatuz eta kooperatiba "aktibotzat" hartzeko irizpideak aplikatuta (adibidez, etxebizitza kooperatibak), esan daiteke Euskal Autonomia Erkidegoan 2.576 kooperatiba aktibo daudela.



Orkestra

LEHIAKORTASUNERAKO
EUSKAL INSTITUTUA
DEUSTO FUNDAZIOA

www.orquestra.deusto.es